



Martxoaz geroztik, COVID-19ak eragindako pandemiak ez du amore ematen mundu osoan zehar eta gure herrian ere gogor jo gaitu. Krisi sanitarioari, krisi ekonomikoa eta soziala gehitu behar zaizkio, eta ondorioek larriak izaten jarraitzen dute.

Bestetik, martxoko eta apirileko konfinamenduaren ostean egoera arindu bazen ere, uda ostean berriro okertu da eta bigarren olatu honetan ehunka lagun hil eta milaka kutsatu dira.

Gabonen osterako osasun agintariak okertze larria aurreikusten ari dira eta hori dela eta Bergarako udalak zera adierazi nahi du:

- 1.- Orain arte azaldutako neurriak Gabonetan ere zorrotz errespetatzea eskatzen die herritarrei. Musukoa erabiltzeak, distantzia gordetzeak eta 6 lagun baino gutxiagoko taldeetan aritzeak gure gertukoenen heriotzak ekidin ditzakete.
2. Goi agintariak, eta dagokionean Bergarako Udalak, har ditzakeen/ditzaketan neurri bereziagoak ere errespetatzea, egoera aldakorra den heinean neurriak ere aldatzen joan daitezkeelako.
3. Udalaz haragoko goi erakundeetako arduradunei eskatzen die behar besteko baliabideak jartzeko osasun zentro publikoetan. Horretarako, ezinbestekoa izango da erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlana, alegia, bizi dugun egoerari aurre egiteko erakunde publiko guztiek elkarrekin eta indarrak batuz lan egitea, bertan egiten diren inbertsio humanoek eta ekonomikoek ez baitute preziorik gure herritarren osasuna zaintzeko orduan.
4. Aldi berean, goi agintariei udalarekin elkarlan lerroak zehaztea eskatzen die ere neurri bereziak hartzeagatik kaltetzen ari diren sektoreak laguntzez behar beste hornitzea, familia askoren diru iturria nagusia moztuta premia larrian gelditzen ari baitira.
5. Bergarako Udalak konpromisoa hartzen du familiar eta herritar zaugarrien esku jarriko dituela udalaren baliabideak, gainerako erakundeekin batera diru laguntza lerroak aztertuz.
6. Azkenik, Bergarako herritar guztiei Gabon zoriontsuak opa dizkiegu, 2021a ilusioz eta esperantzaz bizi ahal izateko.

Begaran, 2020ko abenduaren 21ean